

Ehunka arrain gorri hilik agertu dira gaur itsas-azal urdinean. Mareak ohi baino abiadura handiagoan egin du behera eta, harrigarriki, hego haizea dario aspaldi itzali zen portuari. Kaiko lehorrean arrantza sare metatuak arrain-hezurrez josirik aurkitu dituzte, mendi garailetako itsas izakien fosilak dirudite. Irratiak ez du gertaeraren inguruko azalpenik eman, eta zeru ederra iragarri du ilunsentirako.

Kontserba laten fabrikak atek itxi ditu. Kiebra jo du. Orain aluminiozko milaka lata koipetsu daude zabalik, tontor gris erraldoi bat dago fabrikako atean. Eta baxurako ontzien herdoila ur-azpian, ez da ikusten, baina ezkutuan dagoena ez ikusiagatik ere antzeman daiteke.

Erraza da atzeko kaleko ataka estuetatik kantinara doazen bazterretan galtzea. Bi andre zahar saski bana besoetan, gertaeraren inguruan kontuka, nola badatorren gerezi denbora eta nola larriturik dauden eta nola aspaldi ez duten senarraren gutunik jaso. Inork ez du gaur leihorik ireki. Loreontzi diren plubiometro idorrak, gorri eta berdeak harrizko horma-zuloetan. Zure etxeke ate ondotik pasatzean sentitzen dena. Berriz pasa naizenean sentitu dudana. Edo imajinatu dudana. Eta iturriko kandelak eta Ama Birjina ere desagertu dira gaur. Kantinako toldo ihetua geldu, arrain gorrien antzera, baina urrutian leba-leba dator itsasoa...

Gutun hau ez da distopia bat eta ez dut fikziorik esan. Ez da marinel zaharren inguruko poema bat edo botilaratutako maitasun kantu bat. Sabelean badut esmeralda koloreko ozeano bat eta bi arrain. Eta itsaskirria dabil aspalditik. Ikusi dut begi atzean duzun akuarioa eta nabari ditut zure azal azpian ezkatak lasaieran. Masailak, animalia-sena, edo korronea... Baina berriz murgildu gara ur abisaletan. Nork ukatu dizu maitatzea? Nik maite zaitut. Eta badakit zure akuarioa ez dela nire begiradaren isla hutsa. Bizirik daude. Baina beldurra diozu sirenen kantuari, enbatari, hondoan dagoen horri, ez dakizula igerian agian... irratiak ere ez du

gertaeraren inguruko azalpenik eman. Ez naiz ur gazitan itoko eta ez dut itsasgizon zailduen itzuleraren zain egon nahi. Maite zaitut, baina banoa itsasoz bestaldera. Banoa, baina maite zaitut. Maite zaitut eta banoa. Sabeleko ozeanoa baretu arte hustu eta bi arrain geratu zaizkit lehorrean. Gutun hau ez da distopia bat eta ez dut fikziorik esan. Banoa. Ba omen dira arrain gehiago itsasoan.

Gaur garabiek ez dute lan egin eta arratseko lehen ordurako kale epelak hutsik geratu dira. Honezkero maiatza izan behar du, enarek dagoeneko eurena egin baitute leiho ondoko teilapea. Okupazio ekintzatzat hartu dut habien eraikitzea eta prest dut desalojoaren eguna.

Gaur gertatu dena kontatu nahi nizun, besterik gabe. Irratiak honen berririk eman ez duenez, jakinaren gainean egon zintezan. Bestela, denak bere horretan jarraitzen du eta bere horretan badoa. Zaharrak berri. Estankoa itxi eta lekuz aldatu dute, besterik ez. Etxekoak osasunez oso. Eta laugarren zenbakiko txurro-saltzaileak noiz etorriko zaren galdetzen dit beti. Nik erantzun bera eman izan diot aldiro: ez dudala egundo galdera horren erantzuna jakiteko balio duen haize-arrosik aurkitu. Oraingoan badakidala esango diot, hurrengoan galdera berriz egitea ez dela beharrezkoa izango, sabelean fosildu zaitudala.

Aspaldian ikusi gabeko zero ederrena izan da gaurko ilusentia.